

HITZA HITZ



NI ETA EUSKARA

1.Zutabea	2.Zutabea	3.Zutabea
<p>-Euskara doi bat menperatzen dut ahoz eta idatzian (B2 maila bederen).</p> <p>- Euskaraz hitz egiten dut lankide guziekin, haur guziekin.</p> <p>- Buraso euskaldunekin euskaraz hitz egiten dut.</p> <p>- Buraso erdaldunekin oinarria euskaraz egiten dut (agurtu, eskertu,...).</p> <p>- Buraso erdaldunekin elkarrizketa luzeagoak bulegoan edo gela batean egiten ditut (kanpoan ez eragiteko).</p> <p>- Haurzaindegi denboran, ezin badut ikasle taldea utzi, taldetik urruntzen naiz edo ahapetik mintzatzen naiz, segurtatzen dut haurrek ez gaituztela entzuten.</p> <p>- Ikastolan, euskararen erabilpenaren berme naiz, gelan, jangelan, logelan, kanpoan eta ateraldian.</p> <p>- Hizkuntzaren arabera eginak diren mail zerrendak erabiltzen ditut, gutunak banatzean hizkuntza gometxak errespetatzen ditut, araua hauxe baita : *euskaldunei euskaraz</p> <p>*besteei elebidunez, euskaraz lehenik eta larriz, frantsesez italiko.</p> <p>KASU! Familia bakar bati zuzentzen natzaiolarik ere.</p>	<p>- EGA azterketa lortzen dut (C1 maila).</p> <p>- Ikastolan, euskararen aldeko ekimenen bultzatzaile eta sortzaile naiz, adibidez Euskara egunakari, Korrikakari, edo beste edozein unetan.</p>	<p>-Euskara goi maila frogatzen dut (C2).</p> <p>- Euskaraz biziko arduradun naiz, burasoekin elkarlanean, Seaskarekin loturan.</p> <p>- Toka/Noka/Xuka, Epeuskaparapaz, euskalki ezberdinetan mintzatzen naiz, hitzkuntzaren aberastasunarekin jostatzen naiz eta ikasleei jostatzeko gostua pizten diet.</p>

Ikasturte honetarako zutabera engaiatzen naiz.

Urtrarrileko eta maiatzeko konzertazioan autoebaluaketa egingen dut eta lankideekin aipatuko.



Izenpedura

NI ETA BESTEAK/HARREMANAK

1.Zutabea	2.Zutabea	3.Zutabea
<p>-Lankide, buraso eta ikasleak agurtzen ditut.</p> <p>- 3 oreneko KEB oinarrien saioan parte hartzen dut behin (KEBeko 4 urratsak, arartekaritza, BBB eta eskerren praktikaz jabetzeko).</p> <p>- Egunero « eguraldia » taula osatzen dut, ene egoeraz ohartzeko, lankideekin partekatzeko, baita lankideen berri hartzeko.</p>	<p>-KEB ikasten dut (oinarrizko 6 egunak).</p> <p>- Arartekaritza ikasten dut / BBBak ikasten ditut.</p> <p>- Ostiraletako biltzarretan oinarritzko tresnak zuzen erabiliak direla segurtatzen dut : eskerrak, arartekaritzak BBBak, 4 urratsak.</p> <p>- Nire arazo eta zailtasunak, baina baita ere lorpen eta ospatzeak lankideekin aipatzen ditut.</p> <p>- Behar orduan, arartekaritza edo BBB bat eskatzen dut, eta batera deitua banaiz parte hartzen dut.</p>	<p>- KEB erregulariki praktikatzen dut (hilabetean behin pratika talde batean parte hartuz, formakuntza gehiago eginez).</p> <p>- Arartekari naiz ikastola elkartean (helduen arteko gatazketan).</p> <p>- Errexle naiz ikastola elkartean (helduen arteko gatazketan).</p> <p>- Hasi berrien KEB oinarritzko saioak antolatzen ditut eta animatzen ditut.</p>

Ikasturte honetarako zutabera engaiatzen naiz.

Urtarrileko eta maiatzeko konzertazioan autoebaluaketa egingen dut eta lankideekin aipatuko.



Izenpedura :

NI ETA IKASTOLA

1.Zutabea	2.Zutabea	3.Zutabea
<p>- Nire postu fitxan idatzia dena egiten dut (ikus bakoitzari doakion fitxa + irakasleen kasuan Seaskakoa eta laguntzaileen kasuan bulegokoa).</p> <p>- Ikastolako proiektuaren berme naiz egunerokoan (ipuinak, kantuak, artea,... proiektuari lotzen dizkiot).</p> <p>- Urteko hiru ikusgarrietan parte hartzen dut (eguberriz, ihauterikari eta Arberoa egunean).</p> <p>-Sartzeko bilkuran parte hartzen dut.</p> <p>- Ikastolan berean egiten den oinarrizko "pedagogia praktikoa" saioan parte hartzen dut (3 oren), proiektu pedagogiaz, Montessori pedagogiaz, hots ikastolako pratikez...</p> <p>- Seaskako oinarrizko formakuntzan parte hartzen dut.</p>	<p>- Elkarre bizian engaiatzen naiz :</p> <p>*Biltzar nagusietan parte hartzen dut.</p> <p>-Eskola proiektuan engaiatzen naiz, bilkuretan parte hartuz, nire ekarpenak eginez.</p> <p>- Nire aldetik formatzen segitzen dut :</p> <p>*Gogo erabilketa, montessori pedagogia edo interesatzen nauen edozein gai sakontzen dut.</p> <p>*Seaskak eskaintzen duen formakuntza jarraikian parte hartzen dut.</p>	<p>- Seaskako bizian engaiatzen naiz :</p> <p>*LOTen</p> <p>*Zurkaizgoan, formakuntzan, segipenetan, ...</p> <p>*Seaskako hezkuntza proiektuan engaiatzen naiz lotura segurtatuz ikastolarekin.</p> <p>*Zuzendari taldean sartzen naiz ikastolan (ikus errola ezberdinen fitxa).</p>

Ikasturte honetarako zutabera engaiatzen naiz.

Urterileko eta maiatzeko konzertazioan autoebaluaketa egingen dut eta lankideekin aipatuko.



Izenpedura :

AESH / IRAKASLE / LAGUNTZAILE POSTU FITXA

GELAN



Jarduera mota	Irakaslearen errola	Laguntzailearen errola	AESHaren errola
Helduaren jarrera orokorra edozein mementutan	<p>Haurren segurtasun afektibo eta fisikoa segurtatzen du :</p> <ul style="list-style-type: none"> *ikasleak aretaz entzuten ditu, interesa erakusten die *haur bat zailtasunetan balin bada laguntza eskaintzen dio *haurra errespetatzen du (etiketarik ez, jujamendurik ez, zigorrik ez), zailtasunen aitzinean bere buruaz hitz egiten du *haurren arteko harremani adi egoten da 		
Gelan sartzea	<p>Irakasleak gela prest du, leihoak idekiak, argiak bizi, kaderak jautsiak, ...</p> <p>Irakasleak du gela idekitzen, haurrak sarrarazten, segurtatuz lasaiki sartzen direla, behar duten materiala hartzen dutela, goxoki plantatzen direla.</p> <p>Irakasleak erritualak eramaten ditu...</p>	<p>Irakaslea laguntzen du haurrak lasdaiki sar ditezten.</p> <p>Erritualetan parte hartzen du.</p>	<p>Irakasleak begirada segitzen duen ikaslean du. Behatzen du nola sartzen den beharrez laguntzeko lasaitzen edo berantxago sarrarazten...</p> <p>Erritualetan parte hartzen du.</p>
Talde handiko jarduera : ipuin kontaketa, bizi kaiera, ikasgai orokorra, erritualak,...	<p>Irakasleak jarduera aurretik antolatzen du, materiala prest ezartzen du (fotokopia,...).</p> <p>Irakasleak eramaten du talde osoa, eginbeharra azaltzen du, gidatzen du, ...</p> <p>« Behar bereziak » dituen ikaslea begipean atxikitzen du.</p>	<p>Laguntzaileak parte hartzen du, taldean sartzen da, ahal den heinean hurrekin eginez (borobilean jarriz,...).</p> <p>Beharrez, segitzen ez dutenei ixiltzea, entzutea galdegiten die, diskretuki, ahapetik.</p>	<p>AESHak parte hartzen du, taldean sartzen da, ahal den heinean hurrekin eginez (borobilean jarriz,...).</p> <p>« Behar bereziak » dituen ikaslea begipean atxikitzen du.</p> <p>Laguntza berezi bat behar balin badu, irakasleak galdegin bezala (edo protokoloan zehaztu bezala) laguntzen du.</p>

Talde ttipietako jarduerak	<p>Irakasleak antolaketa azaltzen du, bakoitzaren eginbeharra zehazten. Azpi talde bat edo gehiago kudeatzen du. Talde guzien gainbegirada eta ardura atxikitzen du.</p> <p>« Behar bereziak » dituen ikaslea begipean atxikitzen du.</p>	<p>Laguntzaileak azpi talde bat kudea dezake irakasleak galdeginik eta eginbeharra azaldurik.</p> <p>Lagun dezake giroa lasaitzen, ahapetik mintzatzea galdeginez,...</p> <p>Bilketan laguntzen du.</p>	<p>« Behar bereziak » dituen ikaslea begipean atxikitzen du.</p> <p>Jardueraren betetzeko laguntza behar balin badu, bere taldean jartzen da eta irakasleak (edo protokoloak) erakutsi bezala laguntzen.</p> <p>Bilketan laguntzen du.</p>
Bakarkako jarduerak	<p>Irakasleak materiala antolatzen eta prest uzten du.</p> <p>Bakoitzaren eginbeharra azaltzen du. Batzutan, batzuekin ondoan lan egin dezake.</p> <p>Talde guziaren gainbegirada eta ardura atxikitzen du.</p> <p>« Behar bereziak » dituen ikaslea begipean atxikitzen du.</p>	<p>Laguntzailea autonomia jardueraz (materialaz,...) jabetzen da.</p> <p>Gelan ibiltzen da ikasleak zer ari diren ikusteko, beharrez laguntzeko prest.</p> <p>Hemen ere giroa lasai atxikitzen laguntzen du, beharrez ikasleak zentratzen lagunduz.</p> <p>Bilketan laguntzen du.</p>	<p>AESHa autonomia jardueraz (materialaz, ...) jabetzen da.</p> <p>« Behar bereziak » dituen ikaslea begipean atxikitzen du.</p> <p>Jardueraren betetzeko laguntza behar balin badu, bere taldean jartzen da eta irakasleak (edo protokoloak) erakutsi bezala laguntzen.</p> <p>Bilketan laguntzen du.</p>
Saio bukaeran	<p>Irakasleak gela bilarazten du, segurtatzen du ikasle bakoitzak bere gauzak bildu dituela (zorroa, ...). Gela bildua delarik aterarazten ditu denak elkarrekin eta bera ere ateratzen da zainketara.</p>	<p>Laguntzaileak irakaslea laguntzen du bilarazten. Ikasleek zapetak ematean lasaitasuna zaintzen du. Haurrekin batera ateratzen da kanpora zainketara.</p>	<p>Segitzen duen haurra zaintzen du bereziki, bere puskak ongi bil ditzan. Beharrez pixka bat aitzin edo geroago atera daiteke haur horrekin.</p>

AIRE HARTZEAN



Jarduera mota	Irakaslearen errola	Laguntzailearen errola	AESHaren errola
Haurrak libreki jostatzen dira, eremu ezberdinetan.	Irakasle bakoitzak eremu baten zaintzaren eta bilketaren ardura du. Kanpoko arauez jabetzen da. Arauen berme da eta eredu !	Laguntzaile bakoitzak eremu baten zaintzaren eta bilketaren ardura du. Kanpoko arauez jabetzen da. Arauen berme da eta eredu !	Ez du zaintzaren ardurarik. Kanpoko arauez jabetzen da. Arauen berme da eta eredu, zailtasun baten lekuko balin bada, irakasle edo laguntzaile arduraduna deitzen du. Aire hartze eremuan ibiltzen da « behar bereziak » dituen haurra beti begipean ukateko gisan.

+Ikasle bakoitzak irakasle erreferente bat edo bi baditu, haiek dira burasoekilako harremanaz arduratzen, (zerbait izanez gero haiekin aipatzekoa da, beharrez konzertazioan)

+Heldu guziek konzertazio bilkuretan parte hartzen dute.

+Irakasle guziek ostegun eguerdietako konzertazio ttipietan parte hartzen dute.

HILABETEROKO KONZERTAZIOA

18.15-20.15



EGURALDIA (10')

Molde desberdinetan, bakotxa nola senditzen den adieraziz hasiko gara.

AIPAGAIEN ZERRENDATZEA, ERROLEN BANAKETA (10')

Aipagaiak adostu ondoan, idazkaria eta denboraren kudeatzailea/eramailea nor diren adostuko dugu.

ZUZENDARIEN BILKURAREN BILDUMA (10')

Arras molde sintetikoan, azken bilkuran aipatuak trukatuko ditugu.
Bilkuraren bilduma gure kaieran gehitua izanen da.

BOLEGOKO BILKURAREN BILDUMA (10')

Arras molde sintetikoan, azken bilkuran aipatuak trukatuko ditugu.
Bilkuraren bilduma gure kaieran gehitua izanen da.

HAURREN ITZULIA (30')

Aipatu nahi diren haurren itzulia egingen dugu (segipen berezia, jarrera, kezka...).

BESTE AIPAGAIAK (50')

Gau horretan adostu aipagaien arabera, beste gaiak tratatuko ditugu.
Beharrez gelaka, irakasle/langileak bi taldetan bilduko gira.



**Iraileko, abenduko eta maiatzeko konzertazioetan,
Hitza Hitz aipatzeko tarte bat hartuko dugu.**

IKASLEEN SEGIPENA



2024-2025 ikasturtea :

urte hastapeneko konzertazioan, arrazoin desberdinentzat aipatu diren haurrak zerrendatu dira. Hauen burasoekin urriko oporrak baino lehen bildu nahi dugulako (ikasle berrientzat sartzearen berri emaitako, zailtasun eskolarrak direlarik PPRE baten aurkezteko, jarrera arazoak ikusten baldin badira kontratuaren aipatzeko...)

ANA eta EXTEREKIN :

5.urteko ikasleak

*...
*...

4.urteko ikasleak

*...

3.urteko ikasleak

*...
*...
*...

Ama ikastolako ikasleak

*...

AXELLE eta MAIALENEKIN :

5.urteko ikasleak

*...

4.urteko ikasleak

*...
*...
*...

3.urteko ikasleak

*...
*...

1.urteko ikasleak

*...

BULEGOKO GARBIKETA



ASTELEHENA : MAIALEN eta AMAIA

ASTEARTEA : EXTE eta ELIXA

OSTEGUNA : AXELLE eta VANESSA

OSTIRALA : ANA eta KRISTINA


URTEKO PROIEKTUAK :

urte bukaeran ikasleek haien proposamenak zerrendatzen eta bozkatzeko dituzte.

Udan talde pedagogikoak urteko proiektuak hautatzen ditu.

Urtean zehar proiektu bakoitzarentzat bukaera taldean adosten da : erakusketa, ikusgarria, irrati emankizuna, ateraldia... Ikastolako webgunean, astez aste, proiektu horren berri ematen da.


2024-2025 ikasturteko proiektuak




1- Eskola bantzea



2- Arimen gava




3- Filmeak



4- Euskararen istorioa




5- Ipar poloa




6- Nauteriak



7- Gure aitabei-amaiteak




8- Landerkinak



9- Landerreak/

baratzea



10- Musika

11- EHZ festibala

